

Zinema eta prentsa 1920. hamarkadako gizarte amerikarrian

***Ane Irazabal Elkorobarrutia
Oskia Ramirez Baraze***

EHUko historia ikasleak

Sarrera

Lan honekin historiaren bilakaera ulertzeko ezinbestekoa iruditzen zaigun gizarte arlo bat aztertu nahi izan dugu. Beharrezkoa ikusten genuen, normalean ematen den ikuspuntu ekonomiko zein politikoez gainera, garaiko gertakizunei begirada sozial bat ematea. Are gehiago, 1920. hamarkadaz hitz egitean masa gizarte baten inguruan aritu behar dugunean. Hainbat historialarik garai hau izendatzeko erabiltzen duten *hogeiko hamarkada zoriontsua* esapideak erakarri gintuen benetan gizarte mailan gertatzen ari zena aztertzeraz.

Zinema eta prentsa gustuko gaiak izanik, hauek abiapuntutzat harturik, geure kezka batzuei erantzunak bilatu nahi izan genizkien. Are gehiago kontuan izanik bi iturri hauek gaur ere manipulazio biderik eraginkorrenak kontsideratzen direla. Zer nolako eragina izan zuten garai hartan? Lan honetan, testuinguru historikoa aipatu ondoren (I. puntuan), amerikar zinema (II. puntua) eta prentsa (III. puntua) jorratuko ditugu.

I. Testuinguru historikoa

Lan hau prentsa zein zineman zentratu dugun arren, ezinbestekoa da, oro har 1920.hamarkadako testuinguru historikoaren aipu batzuk egitea, lana bera hobeki ulertzen lagunduko dutenak.

Lehenengo Mundu Gerrak (1914-1918), historialari askoren ustetan, puntu eta aparte bat markatu zuen oro har mundu mailako historian eta bereziki Europako historian. Izan ere, Europarentzat, gerrak hainbat eta hainbat urtetan zehar mantendutako hegemonia mundialaren erorketa ekarri zuen. Europako potentzia nagusiak gerratik garaile atera ziren arren, (Britainia Handia eta Frantzia batik bat), errealitatea oso krudela izan zen haientzat, ezen, ez zen berez garailerik egon. Gerrari eusteko eta bertatik irten ahal izateko, Europa AEBri maileguak eskatzeko beharrear aurkitu zen, modu honetan, bere menpeko geldituz. Honek, Europa zaharrak indarberrituak ziren bestelako potentziei agintemakila utzi beharra ekarri zuen. Horren adibide da, urte gutxitan Wall Streetek hartu zuen indarra eta nazioarteko merkataritza baten suspertzea, beti ere AEBetan erosteko baldintzapean. Hau da, European gerrak utzitako sarraski demografiko zein fisikoak europarrak behartu egin zituen amerikarren produktuekin elikatzeraz. Modu honetan, Ipar Amerika zordun izatetik, mailegu emari izatera pasatu zen, eta, haatik, estatubatuar industria sendotu egin zen. Industriari lotuta aipa dezagun, berrikuntza teknologiek zein lanaren antolamendu modernoek, (taylorismoa), ekoizpén sistemaren hazkundean izan zutela eragina. A.J.P. Taylor historialariaren hitzetan, Gerra Handiak Europako historiaren amaiera seinalatu zuen eta honekin batera, munduaren historiaren hasiera.

Aipatu duguna dela eta, ez da harritzekoa 1920-30. urteen inguruan dagoen oparotasun irudia Estatu Batuekin lotzea. Are gehiago: hamarkada zoriontsu batez hitz egitea ez da egokia mundu mailarako. Hala eta guztiz, egia da XIX. mendeko mundu ordenatu eta elitistaren orde bestea bat etorri zela: zoro xamarra eta protagonista gizarte masak zuena. Oro har, kontsumozko gizarte

baten aurrean gaude, zeinean irratia hedapena, moda, masetara bideraturiko kirolak, jazzak, gona motzak, automobilen salmenta eta fabrikazio zabala, aireko garraioen garapena, telebistaren lehen urratsak, kabaretak, zinema... eguneroko bizitzaren protagonista bilakatu ziren. Mota guztietako industria masen nahietara bideratu zen. Aldaketa hauen guztien muina dena den, hirietan kokatu behar dugu.


Gizarte mailan, aldaketak oso nabariak egin ziren, eta bizitzeko modu berri bati hasiera eman zioten. Emakumeak eguneroko bizitzan hartu zuen protagonismoa kontestu honetan kokatu behar dugu. Emakumeek antzinako sumisioa apurtu zuten, paper aktiboago bat garatuz. Hau da, emakumea masa gizarte horren barruan txertatu zen, haurrak euditu eta zaintzeaz gainera, etxetik kanpo lan egin eta aisialdiko ekintzetan parte hartzen hasi zelarik. Kontsumoa bera ere, emakumearen esku geratu zen eta ordura arte pentsaezinak ziren ohiturak bereganatu zituzten: gona motzekin janztea, eskoteak eramatea, *garçon* erako ile mozketak egitea, erretzea zein edatea, etab. Emakumearen paper berri hau, dena den, hirietan garatu zen batik bat. Esan daiteke, garai honetan gizarteak emakumearen aurpegi probokatibo bate nganako desioa erakutsi zuela. Hau guztia ongi baino hobeto islatzen da aitzinerago azalduko dugun zinemaren garapenean.

Ekonomiari dagokionez, oparoaldia ez zen 1925. urtera arte etorri, ezen ordura arte, gerra osteko ekonomia egon zen indarrean, hots, dirua eta oro har azpiegitura ekonomikoen berreskurapena egin behar izan zen. Langabeziari dagokionez Estatu Batuetan baxua zen Europakoarekin alderatuta. Izan ere, lehenengoan bataz besteko langabetuak biztanleriaren %4 ziren bitartean bigarrenean % 10-20 ingurura iristen ziren. 1925. urtetik aurrera, AEBko ekonomiaren igoera igartzen hasi zen. Kontsumo gizarteak irabazi anitz ekartzen zizkien industria gizonei, eta honek kapitala inbertitzeko aukera ematen zuen. Inbertsio horiek, ordea, ez ziren bide egokitik egin, negozioetan inbertitu beharrean oro har burtsan inbertitzea modan jarri baitzen. Honela, espekulaziozko ekonomia nagusitu zen, zeinetan burtsan adituak ez zirenak ere, bertara bideratu zituzten beren aberastasunak. Honek, burtsaren eskaera izugarri handitu zuen, akzioen prezioaren igoera ekarri zuena. Baina igoera hori hogeigarreneko azken urteetan, ez zen ekonomiaren gorakadaren ondorio izan, aipaturiko eskaeraren igoeraren ondorio baizik. Honela, benetako ekonomiaren eta ekonomia espekulatiboaren arteko desoreka izugarria gertatu zen. Hau agintarien erreakzio gaitasun eskasarekin lotuz gero, 1929ko krisia agertzen zaigu: 1929ko urriko hilabete hartan, goranzko joera beherakorra bilakatu zen, akzioen prezioa jaisten hasi zelarik. Hau ikusita, jende askok beren akzioak saldu nahi izan zituen, baina ez zegoen jada eroslerik. Hilabete honen 24an ostegunez, (*ostegun beltza*), lehertu zen crack-a, non hamahiru milioi akzio atera ziren merkatu motel batera. Krisia beste hiru astez luzatu zen. Ordutik aurrera mundu mailako depresioaz hitz egin behar da, zeinak izugarrizko iraultza ekarri zuen pentsamenduari eta politika ekonomikoari dagokionean.

II. Zinema

1895eko abenduaren 28an, Parisko kaputxinoen bulebarreko *Kafe Handian*, Lumière anaiek ikuskizun harrigarria eman zuten. Pantaila txiki batean argazki bat mugimenduan proiektatu zuten, irudi guztiek honela bizitza hartuz. Zinemaren lehenengo emanaldia izan zen.

XIX. mendearen erdialdea asmakizun teknologiko handien garaia kontsideratzen da. Epe honetan zehar egindako hainbat asmakizun ezinbesteko aurrekariak izan ziren zinemaren garapenerako. Horien artean, argazki kamara, ezen honek irudi errealak geratzea ekarri zuen, bat-bateko inpresioa paper batean plasmatur, bizitza une batez geldituko bailitzan. Orain, irudi estetiko horiek mugiaraztea besterik ez zen falta. Lehia horretan, Frantzia eta AEB aritu ziren, euren ordezkariak Lumière anaiak eta Thomas Edison izanik urrenez urren. Norgehiagoka Lumière anaiek irabazi zuten. Josteko makina bat behatuz, irudiak mugitzen zituen proiektore bat asmatu zuten 1894.ean: zinetomografoa.



Lumière anaien zinetomografoa


Denbora gutxian, zinema egiteko makina hau Espainia, AEB eta Errusiara hedatu zen. Hasierako zinema ez zen dena den dirua irabazteko ikuskizun moduan ulertzen, izaera dokumentalerako baino, bezero nagusiak argazkigintzaren aditu amorratuak izanik.

Behin XX. mendea hasita, Lumière anaien zinema industriak mundu mailan bere monopolioa ezarri zuen. Amerikarrek, euren zinema propioa egin nahian, Thomas Edison aberkidearen esperientziara jo zuten, honen teknologia oinarritzat harturik.



Thomas Edison bere zinetografoarekin

Modu honetan hasi zen garatzen frantziarren eta amerikarren arteko kompetentzia. Lehia horri aurre egiteko Amerikak zinema gune nagusi bat sortu zuen: Hollywood, gaur oraindik zinemaren gune nagusia izaten jarraitzen duena. Itsaso eta mendi artean zegoen herrixka hark, edozein ingurugiroko pelikulak filmatzeko aukera ematen zuen, eta edonolako dekoratuak ezarri zitezkeen. Gerora, azpiegitura hau izateak amerikar zinema mundu osoan inposatzea ahalbidetu zuen. Hala ere, XX. mendearen hasieran zinema frantsesa zen munduaren jabea eta zinema amerikarrak oraindik film frantsesak inportatzen jarraitzen zuen.



Hollywoodland idazkia 1923an jarri zen, nahiz gero *Hollywood* bihurtu zuten.

XX. mendearen lehen hamarkadan zinematik aldaketa sakon bat pairatu zuen. Izan ere, masa handietara bideraturiko filmak egiten hasi ziren, lehenengo generoak ezarriz: western, historikoa, komikoa... Ez da pentsatu behar, dena den, zinematik bere sorreratik bildu zuenik ahotsa bere filmetan. Izan ere, 1920. hamarkadaren bukaera arte zinema mutua izan zen. Europa Gerra Handirako prestatzen zen bitartean, filma mutua hauek ikusleen arreta desbideratzen zuten, zetorren krisi handia modu batean ezkutatu nahian.

II. 1. Amerikako zinemaren kontsolidazioa

II. 1. 1. Zinema propagandistikoaren sorrera lehenengo mundu gerran

Lehen Mundu Gerra hasita zegoela, amerikarrek euren egoera baliatu zuten beren zinema frantsesaren gainetik ezartzeko eta mundu mailan hedatzeko. Izan ere, Frantziak gerraren sarraski odoltsuenak bere lurraldean pairatzen zituen bitartean, Amerika, gerraren eragin zuzenetik salbu gelditu zen. Aipatu beharra dago, Ipar Amerika, Wilson presidente zuela, 1917. urtera arte ez zela gerran sartu, eta sartuta ere, ez zuela erasorik jaso bere lurraldean.

Zinemak gerra garai honetan bere bigarren aldaketa sakona jasan zuen, izan ere, lehen aldiz propaganda instrumentu moduan erabili zen. Industria zinematografikoaren helburu nagusia, jendearengan gerran sartzeko beharraren kontzientzia zabaltzea izan zen, horrela jarrera pazifistak zapalduz. Halaber, zinemaren izaera horrek amerikar abertzaletasuna errotu zuen, baita Europako aliatuenganako solidaritatea zabaldu ere. Hau da, zinemak izaera manikeista bat hartu zuen, onen eta txarren arteko polarizazio bat garatuz. Honetarako, manipulazioa oinarritzko tresneria bilakatu zen, gertakizun batzuk gehiegi puztuz eta beste batzuk estaliz.

Hola, zinema ideologiak transmititzeko tresna indartsuena bilakatu zen; baita hasiera batean onarpen handirik ez zuen gerra bat justifikatzeko eta onartua izateko tresna ere. Hala ere, ez da ahaztu behar zinemak nolabaiteko azpiegiturak bazituen ere, esperimentazio bidean zegoela oraindik, hots, erabat kontsolidatu gabe zegoela. Prozesu horretan, zinema gero eta garrantzi handiagoa hartzen zihoan heinean, bere eragina ere geroz eta nabarmenagoa bilakatzen zen. Garai honetan, zinema amerikarrak izandako garapenak industria zinematografikoaren monopolioa ezartzera eraman zuen, gaur egun arte mantendu dena, hain zuzen ere.

Gerra Handia amaitzen ari zen garaiari lotuta, Charles Chaplinen figura aipatzea derrigorrezkoa da, ezen orduko gertaera politiko, ekonomiko eta sozialak bere filmetan islaturik agertzen dira. Aipatu beharra dago, hasierako zinema oro har, errealitatea errepresentatzera bideraturik zegoela, hots, modu batera edo bestera, film guztiek garaiko egoera historikoa biltzen zutela. 1917rako mundu osoak Chaplinen figura goraiatzen zuen. Honek, zinema komiko berezia garatu zuen, izan ere, satira eta ironia erabiliz errealitatearen ikuspuntu kritiko bat erakusten zuen bere filmetan. Halaber, gainera dezagun, garaiko zinema pazifistaren adierazpen urriak bere eskutik zabaldu zirela batik batik. Honekin batera, jakingarria da, Chaplinen filmetan oinarrituta, gerraren amaieran zinema propagandistikotik bereiztu zen izaera kritikoko zinema zabaldu zela.



Chaplinekin zinema arte bilakatu zen eta gerora hedatuko den zinema komikoaren oinarri nagusizat hartzen da. Bere eragina hain handia izan zen, ezen, gaur egun oraindik gogoratzen den.

Charles Chaplin, *Charlot*



Charles Chaplin *Mutikoa* (1921) eta *Arma sorbaldan!* (1918) filmetan

Laburbilduz beraz, esan genezake hiru izan zirela amerikararren genero nagusiak Lehen Mundu Gerraren garaian: zinema propagandistikoa, Gerra Handiaren inguruko pelikulak egitean oinarritua; zinema komikoa, errealitatearen itxura barregarria agertzen zuena; eta, azkenik, komiko-kritikoa, errealitatearen isla ironikoa egiten zuena.

II. 1. 2. Lehen mundu gerra osteko zinema

Zinema beliko-propagandistikoaren azken arrastoak

20. hamarkadako zinemak erabateko transformazioa jasan zuen, garaiko gizartearen isla gisa. Izan ere, hasieran aipatzen genuen moduan, 1920.eko urteak, itxaropenaren, zorionaren, garapenaren, aldaketaren urteak izan ziren. Zinemaren alorrean, bakea, elkartasuna, anaitasuna bezalako ideiak zabaltzen hasi ziren, bai zinegileen aldetik bai eta ikusle goaren partetik ere.

Gerra ostean, hala ere, oraindik gorrotoaren bidea jorratu zuten zenbait filmen gidoei. Hau batik bat Alemaniari bideraturiko sentimendua izan zen. Horren adibide dira, *Kaiserra hil* eta *Kaiserra ito* bezalako filmen titulu zein gaiak. Argumentu hauetako filmak dena den, gutxiengo izan ziren, ezen bakearen aldeko mugimendua izan zen nagusi. Film asko halaber, soldadu amerikarren etorreraz aritu ziren, hauek heroi gisa aurkezten zituztelarik, eta garrantzi berezia ezarri zen gerrak eragindako ondorio psikologiko, fisiko eta fisiologikoetan. Film hauetariko askok soldaduen berrintegrazio konplexua hartu zuten oinarritzat. Izan ere soldaduek, itzuleran, nolabaiteko alboraketa jasan zuten defendatzera joan ziren nazioaren eskutik, hots, Amerikako Estatu Batuetako gizarte zibilaren

aldetik. Hau da, soldaduak, etxeratzean, gizarte berri baten aurrean aurkitu ziren, zeinean bakearen, elkartasunaren, antimilitarismoaren eta pazifismoaren ideiak nagusi ziren, gerrararen aldeko adierazpenak urriagoak izanik. Horregatik zinematik gerrararen ikuspegi erromantikoa erakutsi zuen eta honen inguruko film gehienek, Amerika gerrararen garaile nagusia bezala aurkeztu zuten, ententeko bestelako herrien papera (Frantzia, Britainia Handia...), zeinak askoz luzaroago egon ziren borrokan, guztiz minimizatuz.

20. hamarkadak aurrera egin ahala, Alemaniarenganako sinpatia jaio zen gizartean, hau zineman ere islatu zelarik. Izan ere, gogoratu beharra dago amerikar askorentzat Alemaniaren industria inbertsio bide garrantzitsu bilakatu zela, herri gauaitu eta desitxuratuan irabaziak seguruak izango ziren ustean. Hau dela eta, etsaiaren fokoa beste lurralde batera pasatu zen, hots, Errusia sozialistara. Horren haritik, gizarte amerikarrear konfusio handia eratu zen, pazifisten eta sozialisten arteko bereizketa egitea zaila bilakatu, neurri handi batean gobernuak eta komunikabideek, zinema barne, aurrera eraman zuten boltxevikeen aurkako politika zela eta.

20. hamarkadaren hasieran gerraz ziharduten filmak oraindik lekua aurkitu bazuten ere, zinematik, oro har, ikuspegi berri bat zabaldu zuen, gizarte zoriontsu eta aurrerakoi baten itxura eman zuena hain zuzen.

Zinemaren genero nagusia: zinema komikoa

Komedia garaiko genero garrantzitsuena izan zen. Nagusigo hori eragin zuten faktoreak ulertzeko momentuko gizartearen aipu bat egin beharrean gaude.

Gerrararen ondorioz, hainbat emakume bulego zein fabriketan lan egitera behartuta egon ziren. Honek biziki eraldatu zuen gizarteak, oro har, emakumearenganako zuen ikuspegia. Aurreko garaiko menpeko emakumearen ordez, *flapper* emakumea agertu zen, hots, langilea, buruaskea eta pinpirina. Honek guztiak halaber ohituren transformazioa ekarri zuen, emakume unibertsitariari, abokatuari, medikuari... gutxinaka bidea zabaldu zitzaion. Dibortzioa bezalako praktikak ere onartu egin ziren garai honetan, emakumearen independentzia eta burujabetasunerako pauso garrantzitsu bat suposatu zutenak.

Egoera berri honetaz zinema aprobeixatu zen. Izan ere, honetan oinarriturik, genero berri bati bultzada eman zitzaion: zinema komikoari. Zinema komikoa, garai honetan nagusi zen filosofiarekin, hots, bizitzeko ilusio ideiarekin, blaitu zen. Genero berri hau, halaber, filosofia honen bultzatzaile nagusietakoa bilakatu zen. Honen adibide dira *Isn't Life Wonderful?* (1924) eta *California Straight Ahead* (1925) filmak, besteak beste.

Esan dugun guztiarekin ondoriozta daiteke, garai honetako komediak gaur egun zinema komiko gisa ulertzen dugunak baino definizio zabalagoa zuela. Tematikoki, bikote hurremanak (*romantic*), ezkontza (*domestic*) eta eguneroko bizimodua (*society*) aztertzen zituen, batik bat. Hauez gain, bestelako azpigai asko landu zituen, ordura arte modu naturalean adieraztea pentsaezinak zirenak: ligatzea, harreman sexualak, adulterioa... Hauek guztiak, beti ere, modu ironikoz

aztertuak. Izan ere, ezin da ahaztu ironia zinema komikoaren oinarritzko osagaia izan zela. Gogoratu beharra dago ere, garai honetan zinema mutuaren aurrean gaudela, eta, beraz, ironia eta umore puntu hauek espresionismoaren eta mimikaren bidez adierazten zirela.

Zinema mutuaren urrezko garaia

1920. hamarkadaren lehen erdialdea zinema mutuaren urrezko garaitzat jo daiteke. Izan ere, garai honetan egun oraindik indarrean segitzen duten zinema produktora nagusietako batzuk sortu ziren, zinema amerikarra mundura hedatu zen (Europaz gain, Asiarra eta Hego Amerikara), emakumearen figurak garrantzia hartu zuen pantailan...

Produkzioei dagokienez, *Paramount Pictures*, *Fox*, *Universal*, *Warner Brothers*, *Columbia* eta *Metro Goldwyn Mayer*, (lehoiaren produkzioa) moduko enpresak garai honetakoak dira. Hauek guztiak Hollywooden benetako finkapena bultzatu zuten eta zinemaren muin nagusia bilakatu ziren. Are gehiago, hasiera eman zioten gaur oraindik monopolioa mantentzen duen industria zinematografiko amerikarri. Historikoki aipatu beharra dago, halaber, dirua irabazteko inbertitu beharraren filosofia kapitalista erabat mamituta zegoela gizartean, eta, honi jarraituz, askok kapitalaren inbertsioa zinemara bideratu zutela. Hainbat historialarik prozesu honi "urrearen sukar berriaren garaia" deitu izan diote. Haatik, aktore eta zuzendari asko, Hollywood-eko agenteen eskutik, industria berri honetan txertatu ziren, horretarako juduek Wall Street-en zuten kapitalaz baliatuz. Honela uler daiteke Hollywood-eko kapitalaren inbertsore nagusietakoak judu estatubatuarrek izatea.


Garai honetan Hollywood zazpigarren artearen muina izateaz gain, lehen aldiz, industri pisutsu bat izatera ere pasa zen. Bi elementu hauek konbinaturik, mundura zabaldu eta bere hegemonia mundu mailan ezarri zuen. Arrakasta hau ulertzeko, garai honetan Estatu Batuekiko zegoen miresmena aztertzea ezinbestekoa da. Izan ere, amerikarren garapen teknologikoak, enpresen gestioan zuten eraginkortasunak, merkatal arrakastak, eta abarrek beste herrientzat eredu bilakatu zituen. Are gehiago, mundu europarra neurri batean Estatu Batuen menpean egotera pasatu zen, ezen Ipar amerikarrak euren mailegu emaile nagusiak izatera igaro ziren. Honekin guztiarekin, Estatu Batuak mundu mailan lehen potentzia bihurtu ziren, Britainia Handiari bere nagusitasuna kenduz.

Ezin diogu puntu honi amaiera eman, garaiko aktore nagusiak aipatu gabe. Hamargarren hamarkadan Charles Chaplin aipatzen genuen bezala, hamarkada honetan *star system* bati buruz hitz egin behar da. Hau da, hein handi batean, aktoreek gizartearenganako zuten influentzia handiagotu egin zen eta idolo kontsideratzen hasi ziren. Era honetara, aktoreak langile hutsak izatetik, izarrak izatera pasatu ziren. Ezinbestean aipatu beharra dago, halaber, emakumeek filmetan hartu zuten protagonismoa. Protagonismo hau emakumeek garaiko gizartean hartu zuten tokiaren isla izan zen. Zinema honen idolo nagusiak Rodolfo Valentino eta Greta Garbo ditugu. Hauek garaiko filmen protagonista garrantzitsuenak izateaz gainera, lehenengo mito erotikoak bihurtu ziren. Hauekin batera, Mary Pickford, John Gilbert, Gloria Swanson, etab. aipatu beharko

genituzke. Modu berean, jakingarria da aktore berrien belaunaldi honen harrobia ez zela oro har Ipar Amerikan aurkitzen: izan ere, hauetako askoren jatorria Europa zen.



Goian: Greta Garbo (ezkerretara) eta Gloria Swanson (eskuinetara)
Behean: Rodolfo Valentino (ezkerretara) eta John Gilbert (eskuinetara)



Entzutezko zinemaren agerpena eta 1929ko crack-a

Zinemarenganako miresmena handituz joan zen heinean, ikusleak zerbait gehiago eskatzen hasi ziren, hots, zinema mutuaren espresionismoa hitzen bitartez adieraztea, eta euren idoloen ahotsa entzutea. Honela, 1927an entzutezko zinema jaio zen. Honek izugarritzko zirrara eragin zuen mundu osoan zehar. Berrikuntza honen oinarriak, Lee DeForest ingeniariaren lanarekin finkatu ziren, sinkronismoaren eta soinuaren artean zegoen bateraezintasuna konpontzean. Lehenengo saiakerak 1926. urtekoak badira ere, 1927. urtera arte ezin da lehen entzutezko filmaz hitz egin. Hau, urrian estreinatu zen, *The Jazz Singer* titulupean.



The Jazz Singer filmaren kartela eta eskena bat

Soinuaren agerpenak aurrerapauso handia ekarri zuen arlo guztietan, ekonomikoan batik bat. Izan ere, zinema egiteko modu berri honek irabazi handiak sortarazi zituen. Ez kasualitatez, zinema soinudunak oso harrera ona jaso zuen gizartean eta ikusle kopurua handitu egin zen. Estatu Batuetatik kanpo, ordea, ez zen hain begi onez ikusi. Izan ere espresionismoa lengoaiia unibertsala zen bitartean, soinuarekin unibertsaltasun izaera hori galdu egin zen. Hau da, filmak ingelesez produzitzen zirenez, hauek herrialde ez anglosaxoietan ez zuten arrakastarik izan itzulpenak sortu ziren arte. Haatik esan behar da, Estatu Batuetan bertan ere, kontrako jarrerak anitz izan zirela zinegileen artean, horietatik gogorrenak Charles Chaplin maisuaren eskutik etorri zirelarik. Bere esanetan, entzutezko zinemak isiltasunaren edertasuna apurtzen zuen.

Soinuaren agerpen hau oro har positiboa izan bazen ere, kasu batzuetan eragin negatiboak izan zituen. Zinemagile askok, esaterako, ez zuen jakin egoera berri honetara moldatzen. Hau batez ere aktoreengan nabarmentzen da. Horren adibide dugu, gorago aipatzen genuen John Gilbert: jarraitzaileek bere ahotsa entzutean zioten miresmena galdu zuten, soinuak bere aktore karreraren amaiera ekarri ziolarik. Kontrako adibidea Greta Garborena dugu: bere hitz egiteko era modan jarri zen eta aktorea moduan gailendu egin zela esan dezakegu.

Hollywoodeko zinematik hogeigarren hamarkadaren azken urteetan bizi izan zuen gorakada hau, neurri handi batean, 1929ko gertakarien ondorioz estankatu egin zen, gizartearen gainontzeko sektore guztiak bezalaxe. Hala ere, Estatu Batuetako zinematik bere nagusitasuna mantentzen jarraitu zuen mundu mailan.

Krisi ekonomiko eta sozial honi aurre egiteko, Hollywoodek ahalik eta jende gehien erakartzeko film optimistei ekin zion. Modu honetan, ikuslea garaiko egoera ezegonkor horretatik aldentzeko nahian, zinemagileek filmen bidez ilusio eta zorientasunaren baloreak transmititu zituzten. Ideia honi jarraituz genero berri bati hasiera eman zitzaion, musikalak hain zuzen ere. Genero berri honek garaiko musika estiloak bildu zituen, (jazz, blues...), eta honela zinema musika hauek mundura zabaltzeko beste bide bat bilakatu zen.

Zinema musikalaz gain, 29ko crack-arekin lotuta, beste genero berri bat agertu zen: beldurrezko zinema. Garai honetakoak dira *Dracula*, *Frankenstein* eta *King Kong* bezalako filmak, zeintzuetan efektu bereziak garrantzi handia hartzen hasi ziren. Halaber, modan jarri ziren animalia hipertrofiatuak eta erotismoa.

Hogeita hamargarreneko hamarkada honen hasieran, dena den, bestelako genero batek hartu zuen berezko garrantzia: zinema beltzak. Izen honek erreferentzia egiten dio 20. hamarkadan zehar hedaturiko mafiari eta hari lotutako gaiei, zeintzuen garrantzia handitu egin zen 29-ko crack-aren ondorioz. Garaiko mafia, ongi antolaturiko krimen eta ustelkeria politikoaren kontestuan ulertu behar dugu, non biztanleria babesik gabe sentitzen zen. Zinema beltza argi eta itzalen arteko jokoan oinarritu zen, baita dekoratu klaustrofobikoetan ere, arnas ezina zen atmosfera bat irudikatzen zutenak. Honek ongi baino hobeto islatzen zuen garaiko espiritua, non gizakia moralik gabeko gizarte batean murgilduta aurkezten zuen. Azkenik aipa dezagun zinema beltzak emakumearenganako misoginiari ireki ziola bidea.

III. Prentsa

III. 1. Prentsa amerikarraren ibilbidea XIX. mendean

Prentsaren ibilbidea munduko historian, zinemarenarekin konparatuz gero, askoz ere antzinagokoa dela esan beharra dago lehenik. Izan ere prentsaren lehenengo agerraldiak XVII. mendekoak baitira, Amerikan publikaturikoak hain zuzen ere. Prentsaren fenomenoak indar handia hartu zuen Europako eta bertako potentzien kolonia guztietan. Gure lan honetan dena den, Estatu Batuetako prentsaren bilakaeran besterik ez gara oinarrituko.

1690.eko irailaren 25ean, lehenengo egunkaria agertuko da kolonia ingelesen, Bostonen hain zuzen ere: *The Public Occurrences*. Hala ere, Estatu Batuetako prentsaren historiaz hitz egitean, letra larriz adierazten den lehenengo egunkaria *Pennsylvania Gazette* dugu, Filadelfian Benjamin Franklinen eskutik argitaratua 1728 urtean. Hau, egunero inprimatzen hasi zen lehenengo egunkari dugu.

XVIII. mendeko prentsa estatubatuarrak Ingalaterrako prentsa izan zuen eredu hasiera batean. Baina denboraren poderioz egoera aldatu zen, prentsa amerikarrak bere bide propioa garatu zuenean. Honekin batera jakingarria da Estatu Batuetako koloniek abantaila izan zutela europarrekiko kazetaritza garatuago bat lortzeko. Izan ere, amerikarrek ez zuten antzinako erregimenak ezartzen zituen trabak gainditzeko beharrik izan, ingelesen ez bezala. Are gehiago, prentsa estatubatuarrak beren kolonizatzailea zen Ingalaterrarekin alderatuta, askatasun zein tolerantzia maila askoz ere altuagoa zuen.

Independentzia lortu ostean ere, estatua altxatzeko ezarri ziren zergen sistema gogorrek ez zuten prentsaren garapena moztu. Are gehiago, independentziaren aldarrikapenak etorkizun berri bat ekarri zion prentsa estatubatuarrari.

Estatu Batuek XIX. mendean, herri bezala garapen handia lortu zuten, (berezi XIX. mendearen erdialdetik aurrera): aipatzekoak dira Europatik egindako inbertsioak industrian, europar inmigrazioa, populazioaren hazkundera, eta horrek guztiak bultzatu zuen mendebalderanzko zabalkundera lurralde berriak eraikitze eta Amerika zabalago bat sortzeko asmotan. Halaber, nabarmendu beharra dago trenbidearen garapenak Estatu Batuetako gizartean izan zuen eragina, eta berezi honek izan zuen garrantzia prentsaren garapenean. Izan ere trenbideak berrien mugikortasuna errazten zuen. Lurrunezko itsasontzigintzaren aurrerapenak ere, zeresan handia izan zuen prentsaren garapenean zein sozializazioan, ezen, honek kostaldean zeuden hirien arteko komunikazioa hobetu zuen. Honela apurtu egin zen ordura arte Estatu Batuetako prentsak izandako oztopo handienetariko bat, hots, lurraldearen hedadura handia. Hau da, lurraldea hain zabala izanik, ordura arte zailtasun handiak egon ziren prentsa nazional bat eratu ahal izateko. Trenbideak zein lurrun itsasontziek neurri batean muga hauek gainditu bazituzten ere, oraindik denbora dezente itxaron behar izan zen prentsa amerikar nazional batez hitz egiteko.

Garapen industrialarekin batera, inprenta tekniken hobekuntza handiak gertatu ziren, egunkarien historian epealdi berri bat ekarri zutenak. Izan ere, teknika hauek egunkarien kopia gehiago egiteko eta azkarrago erreproduzitzeko aukera eman zuten, modu honetan irakurzaletasuna eta prentsa eskaria handituz. Erants dezagun egunkariak, teknika hauei esker, formatu handian inprimatzen hasi zirela, *tabloide* deiturikoan, egunkari izaeraren ikur nagusia dena. Formato txikia mantendu zutenak, prentsa sentsazionalistara bideraturikoak izan ziren.

Prentsa enpresariak, negozio honek zekartzan irabaziak ikusita, gizarteko sektore guztietara bideraturiko prentsa berri bat diseinatu zuten, *penny press* izenekoa (prentsa merkea). Prentsa berri honen zabalkundearen bi dira kontuan hartu beharreko faktoreak. Alde batetik, gizartearen alfabetizazio tasa altua eta bestetik, publizitate komertzialaren agerpena prentsan. Azken hau, finantziario iturri nagusienetariko bat bilakatu zen egunkari amerikarrentzat. Datu interesgarri gisa aipa daiteke egunkarien hiru laurdenak iragarkiei eskainiak zeudela.

1830. hamarkadan, bi egunkari berri sortu ziren: *The New York Morning Herald* (prentsa sentsazionalista kontsidera daitekeena), eta *The New York Tribune*. Bi egunkari hauek, beste batzuen artean, *penny press* mugimendu horretan sartuta, indartu egin zuten masetara bideraturiko kazetaritza.

1851. urtea, urte berezia da prentsa estatubatuararentzat. Izan ere garai honetan Estatu Batuetako egunkari esanguratsuenaren jaiotza gertatu zen Henry Jarvis Raimond-en eskutik: *The New York Times* sortu zen. Raimond politikaren jarraitzaile sutsua izan arren, prentsa objektibo eta ez-partidistaren aldekoa zen, eta *Herald*-ek zein *Tribune*-ek ematen zuten berri sentsazionalistekin amaitzea izan zuen helburu. Hala, *The New York Times* sorberriaren ezaugarri nagusietakoa, ospea emateko ezinbestekoa izan zena, atzeritik zekartzan berrien atala izan zen, Europako berriena hain zuzen ere.

XIX. mendeko prentsaren ibilbidea erabat markatu zuen estatubatuar politikak. Izan ere, federalisten eta errepublikarren arteko amaiezinezko lehiak egunkariak pairatu zituzten. Lehia hauek, XIX. mendearen hasieratik zetozen, eta honek egunkariak mende osoan zehar alde batean edo bestean lerrokatzea ekarri zuen. Lerrokatze hau 1860. hamarkadaren hasieran areagotu egin zen nabarmen, Sezesio gerraren garaian hain zuzen (1860-1864). Gerra guztietan bezala, prentsa propagandarako tresna bihurtu zen, egunkari gutxi batzuk izanik salbuespen (objektibotasuna mantentzen ahalegindu zirenak). Sezesio gerra prentsan ekarri zuen ondorioetariko bat, Iparraldeko egunkarien nagusitasuna izan zen, batez ere New York-eko egunkariena.

Aipatzekoa da, azkenik, Estatu Batuetako prentsaren historian, garrantzi handikoa izan den figura bat: Joseph Pulitzer. Soilik esan dezagun Pulitzerrek eman ziola garapena eta ospea XIX. mendearen amaieran prentsa dominikalari, eta berebiziko eragina izan zuela pertsonai honek masazko kazetaritzaren bultzadan.

III. 2. XX. mendeko prentsa estatubatuarra

III. 2. 1. XX. mende hasieratik I. Mundu Gerra bitarteko kazetaritza amerikarra

XX. mendearen hasieran Estatu Batuetan 2600 egunkari eta 14000 astekari argitaratzen ziren, 90 milioi biztanletara bideratuak. Irakurleak beraz, bazuen non aukeratu. Garai honetarako hitz egin daiteke jada masetara bideraturiko kazetaritza kontsolidatuaz. Hortaz, 1830. hamarkadan *Penny press*-ekin hedatzen hasi zena, 1870.hamarkadan indartu eta XX. menderako kontsolidaturik zegoen.

I. Mundu Gerrarekiko sentimenduak, zinemaren atalean jada ikusi dugun moduan, aldatuz joan ziren honek aurrera egin ahala. Modu honetan, hasiera batean gerra honen aurrean aislazionismoa eta pasibitatea nagusi ziren bitartean, azkenean, agintarien interes politiko zein ekonomikoak tarteko, amerikarrek gerran partaide izaten bukatu zuten. Gerraren sarrera honetan, zer ikusi handia izan zuen "Ur azpiko gudak" (Alemaniaren zein Britainia Handiaren artekoa). Honen ondorioz, Estatu Batuetako Amerikak ententearekin aliatu eta alemanenganako gorrotoa zabaldu zuen. Prentsak, sentimendu honen hedapenean zeregin garrantzitsua jokatu zuen. Izan ere, hasierako gerra honekiko populazio pasiboa, populazio aktiboa izatera pasarazi zuen, hots, gerran murgildurikoa eta gerraz iritzia ematen zuena.

III. 2. 2. 1920ko hamarkadako prentsa

Gerra Handiaren ostean, AEB ostera ere epealdi aislazionista batean murgildu zen. Hala prentsa propagandistikoa amaitu bazen ere, jarraiki hautatuak izan ziren presidente errepublikarrek ez zuten kazetaritzaren garapenean lagundu. Hala ere, 1920ko hamarkadak kazetaritza berri baten jaiotza ekarri zuen, hots, *Jazz Journalism* deituriko fenomenoak. Bertan egunkari berriak argitaratu ziren: *Daily News*, *Daily Mirror* eta *Daily Graphic* urrenez urren. Fenomeno honetan murgildurik, ilustrazioek berezko garrantzia hartu zuten. Hau da, argazkiak gero eta gehiago txertatu ziren egunkari zein aldizkarien orrietan, berauek askoz erakargarriagoak bilakatu. Ilustrazioak egunkarien portadetan agertzen hasi ziren unetik, berauen salmentak izugarri hazi ziren. Hala eta guztiz ere, kazetaritza modu berri hau prentsa sentsazionalista batera bideratu zen, ezen, "1920ko epealdi zoriontsu" horretan, jendeak kazetaritza horiarenganako fideltasuna erakutsi zuen, morboa aurkitzeko asmotan. Honi guztiari dei geniezaioke *jazz journalism*.

Garai hartan ere antipuritanismoa, askatasuna eta anglosaxoi literatur tradizioaren mesprezua bezalako idealak bultzatu ziren, amerikar izpiritu kritikoa piztuz. Honetan guztian, prentsen editorialek zer esan handia izan zuten.

Astekarien indartzea ere aipatu beharrekoa da, ezen, aurretik garaturiko dominikalekin batera, astean gertaturiko gertakizunen errepasoak egiten zuten aldizkariak nagusitu ziren.

Honekin batera, ezinbestekoa da aipatzea hamarkada honetan tarkekatu ziren estatubatuar presidentek, bertako prentsarekin izan zituzten harremanak. Erlazio hau presidente bakoitzaren izaeraren arabera izan zen. Wilson demokratarekin *Committee on Public Information* deituriko erakundea sortu zen, zeinak prentsa eta gobernuaren arteko harremanak erregulatzen zituen, eta esan daiteke bi instituzioen artean harreman onak mantentzeko balio izan zuela. Are gehiago, Wilsonek berak kazetaritza herriarengana hurbiltzeko tresna gisa ulertu zuen. Honek guztiak prentsa konferentziak bultzatu zituen, zeinak modu erregularrean antolatzen ziren.

1921. urtetik 1932 arte errepublikarrek gobernatu zuten AEBn. Urte hauetan hautaturiko hiru presidentek harreman hotzagoak izan zituzten prentsarekin. Harding-ek (1921-1923), adibidez, idatzizko inkestak bultzatu zituen eta hauek konferentzien komunikazio gaitasuna ahuldu zuten. Hau da, Wilsonen aurreko legegintzaldian bultzaturiko konferentziek, garrantzia zein protagonismoa galdu zuten, Hardinek ez baitzuen behar bezalako harretarik eskaini. Coolidgek (1923-1929) aurrekoaren ideari hertsiki jarraitu zion prentsari dagokionez. Hoover-ek (1929-1933), ordea, konferentzia zein inkestak desagerrarazi zituen, zurruntasuna ezarriz eta prentsa zein gobernuaren arteko harremanak etenez. Prentsa eta gobernuaren arteko harreman horiek, Franklin Delano Roosevelt presidente demokratarekin berreskuratu eta hobetuko ziren, horretarako ordea, 1933. urtera arte itxaron behar izan zen.

Eboluzio honetan ezinbesteko garrantzia izan zuen AEBk bizi izan zuen garapena, ezen, presidente errepublikar horiek mantenduriko politika aislazionista zein protekzionista irudimenezko oparotasun batean oinarritu zen. Hau da, itxuraz ekonomikoki gorakada fase batean murgilduriko herria zenak, errealitate korapilatsua bizi zuen oso, izan ere espekulazioan oinarrituriko politika-ekonomiko bat garatua zuen. Herritarrak ere, ez zekiten zein zen benetako egoera, 1929ko burtsaren crack-a heldu zen arte. Hau izan zen hain zuzen ere, 1920. hamarkadako gestio ekonomiko kaxkarraren hizpidea. Prentsa ongi baino hobeto aprobetxatu zen egoera horretaz gestio hori kritikatzeko. Hasierako krisiaren eta ondorengo depresioaren biktimak ziren herritarrak bilakatu ziren bada egunkarien protagonistak; bankarrietatik, herritar xumeetaraino.

Depresio handiaren ondorengo hilabeteetan, prentsaren gehiengoa aldaketa politiko baten alde agertu zen, ordura arte presidentzia izandako errepublikarrek gogor kritikatu, Hoover batik bat. Egunkari gehienek, Hoover deklaratu zuten egoeraren errudun bakarra. Prentsak modu honetan, Roosevelt-en garaipenean biziki lagundu zuen.

IV. Bibliografía

- AA (1995): *Érase una vez el cine, Biblioteca interactiva mundo maravilloso*, Madrid.
- AA (1997): *Historia general del cine IV, América (1915-1928)*, Cátedra, Bilbo.
- Caparrós, J. M. (2002): *Breve historia del cine Americano, de Edison a Spielberg*; Littera, Bartzelona.
- Gómez Mompart, J. - Marínotto, E. (1999): *Historia del periodismo universal*, Síntesis, Bartzelona.
- Paz, M. - Montero, J. (1995): *Historia y Cine: realidad, ficción y propaganda*, Ed. Complutense, Madril.
- Pizarroso, A. (1994): *Historia de la prensa*, Centro de estudios Ramón Areces, Madril.
- Ruíz, E. (1997): *Obras maestras del cine mudo, época dorada (1918-1930)*, Mensajero, Madril.

www.historiasiglo20.org

www.usinfo.state.gov/español/eua/hist.htm

www.cineclasico.com